



Oier Gorosabel -@Txikillana
Fisioterapeuta

Porlan arteko eguzki izpiak

Altsasuko gazteei emandako epaiaren kolpea hartu eta gero, haien herrikideek gizartearen aktibazio handia lortu dute. Halere, badakit beroaldia pasatu eta gero gizarteak bere bizimoduarekin jarraitzeko joera duela –zer bestela?– eta orduan txex, adrenalina maila jaisten denean, sentitzen duela bakardaderik handiena ziegan dagoenak.

Une horietan pentsaturik, egokia iruditzen zait gogoratzea epaiaren osteko ordu etsigarrietan irratan entzun nuen gurasoei eginiko elkarrizketa bat. Bertan agerian geratu zen “justiziaren” aurka pultsuan ari zitezak ez duela kentzen norbere burua jagotea: ekaitzaren erdian, preso dauden gazteetako asko ikasketetan eta kirolean babestu direla jakin genuen. Mundutik aparte egingo dituzten urteetan, urliak Psikologia ikasiko du, sendiak Zuzenbidea... Sinbolo ederra iruditu zitzaidan, arazoaren muinean sartzeko jorratu behar diren arlo garrantzitsuak direnez. Hartutako kolpearen indarra itzultzeko bidea, zesta-punta jokalaria ren esti-loan.

Gauza txarrenetik irakaspen onak atera daitezke: “sakanikolak” egiten ari diren kanpainak, zeharka, preso dauden beste pertsona askoren egoera ere irudikatzen du. Haiekin eginiko bidegabekeriak hain nabarmenak ez direlako, edo hainbeste “zarata” ateratzeko ahalmenik ez dutelako, Altsasukoek jasan duten antzerako tratua jasan duten pertsona asko baitaude kartzelan. Kasu honek beste haienak ere irudikatzen ditu, neurri batean. Eta horrek ez dio Altsasukoek aldarrikapenei indarririk kentzen, baizik eta beste dimentsio bat ematen: “justizia sistema” izeneko oximorona ezin hobeto azalera-tzen du, eta gure gizarte ereduaren



Altsasukoek alde joan den asteburuan izandako bizikleta martxa. Iñigo URIZ | FOKU

porrota gordetzen duten porlanezko kaiolen alfonbra altxatzeko aukera eman.

Jakina: espetxean dagoen edozein pertsonaren lehentasuna norbera ondo egotea da. Baina norbere buruarekin egokiro jokatzeko duena ingurukoentzako eredu izaten da; eta zerbait irakasten duenak ere asko ikasten du, askotan ikasleek eurek baino gehiago. Ildo horretan, esango nuke Altsasukoak Zaballako espetxe-ko “maizter” guztien artean eguzki izpiak bezalakoak izan daitezkeela. Kartzeletan, preso politikoen proportzioa txikia izaten da preso sozial guztien artean; baina azken horiek dira egoera dramatikoenean daudenak. Esklusio soziala, adikzioak, pobrezia, etorkizun iluna... Preso politikoa, “marrajoen” aldean, askoz ere hobeto egoten dira: gehienetan kultura maila

handiagoa eta kanpoko babes handiagoa izaten dituzte. Testuinguru horretan, preso politikoei oso eragin mesedegarria izan dezakete preso sozialengan. Eta ez nabil proposatzen kartzelako zuzendaritzarekin kolaboratzea (hezkuntza programetan eta abar), denen laguna izatea (ezinezkoa, denbora guztian zure diruarengan pentsatzen ari direnekin), proselitismo mesianikoan hastea edo matxindatzea bat bultzatzea. Hori baino sinpleagoa da: norbere burua zaintzea, ereduaren irakaspena emanez, eta hurbildu daitekeen pertsonarekiko irekia izanez, ideologiaren eta desberdintasun pertsonalen gainetik. Pertsona bakarrari irakurtzen ikasteko gogoia piztea, kalean eginiko ekintza iraultzaileenaren pareko izan daiteke-elako. •